

Oier Araolaza

DANTZARIA

Shanghaiko lezioa

S

ukaldariak eramango zituztenik ez nuen zalantza egiten. Txalapartariekin ez nintzen harritu. Eta dantzariak ere izango zirela aurreikusen nuen. Baina aizue, sorpresa hartu nuen zein dantzari eraman dituzten ikusitakoan. Baita poztu ere.

Joan da Eusko Jaurlaritzako lehendakaria Shanghaiko Erakusketa Unibertsalera, eta Arzak, Berasategi, Aduriz eta Subijana eraman ditu sukaldari lanetara. Bale, hori aurreikuspenetan sartzen zen. Dantzariak ere ohiko apaingarria izaten dira erritual instituzionaletan, eta Shanghaira ere eraman dituzte. Dantzari tradizionalak gainera, txapela eta gerrikoa janzen dituzten horietakoak. Baina dantzariak ez dute Loiutik abiatutako hegazkin berean bidaiatu. Idahotik, Ameriketako Estatu Batuetatik joan baitira Shanghaira euskal dantzak eskaini dituzten dantzariak, Boiseko Oinkari dantza taldekoak.

Ez daukat ideiarik ere zein arrazoik eraman duen lehendakaria Shanghairako dantza taldea AEBetan fitxatzera. Pentsatu nahi dut uztailean Boiseko Jaialdian ikusi zituela eta haien maila bikainak txundituta hautatu zituztela. Izan liteke, noski, hemengo dantza taldeak abertzaletasunarekin lotuta ikusten dituztela eta horri



DANI BLANCO

ihesi egin nahi izan diotela. Arrazoa dena delakoa izanda ere, ni poztu egin naiz.

Jakina da diasporan dantzak paper berezia jokatzen duela identitatearen formazioan eta komunitatea trinkotzeko lanean. Eta urteak dira Boisean, Chinon, San Frantziskon, Montevideon edo Buenos Airesen Euskal Herrian bertan baino maitasun, indar eta zaletasun handiagoarekin dantzaten direla euskal dantzak. Baina, itsasoaz bestaldeko dantzariak Europako dantzari begira bizi dira. Diasporaren konplexuak kateatuta ditu, eta menpekotasunez bizi dute harremana. Euskal dantzariak zer egingo duten zain, han ispilua egiten saiatzeko.

Txinan euskal ordezkariaren irudia Boiseko Oinkari dantza taldekoei eskaintzea errekonozimenduz hartu behar dute Amerika osoko dantzariak. Aspaldi erakutsia zuten Euskal Herriko beste edozein talde bezain irudi duina –hemengoek baino txukunagoa, askotan–, eskaintzen dutela. Euskal dantzetan aditu eta espezialistak dituzte, dantzari bikainak ere bai, eta urte askotako –Oinkarik 50 urte, esate baterako– ibilbidea. Espero dut, Shanghaiko lezioak dantzari nortasun euskal-amerikarra sendotu eta ibilbide propioa egitera animatuko dituela. ■

«
Ez daukat ideiarik ere zein
arrazoik eraman duen lehendakaria
Shanghairako dantza taldea
AEBetan fitxatzera (...)
Arrazoa dena delakoa izanda ere,
ni poztu egin naiz
»

TXANDAN

Castillo Suarez



Ez dakit beste toki batzuetan hala den, baina nire herrian behintzat, gazte batek –normalean mutila– lana aurkitutakoan egiten zuen lehendabiziko gauza autoa erostea zen. Ez bigarren eskuko autoa, auto berria baizik; potentzia handikoa gainera. Herriko lantegietan lana aurkitzea erraz xamarra zenez, eta orduak sartzeko ohitura handia zegoenez, ingurua zilindrada handiko autoz bete zen, kustomizatuak eta tuneatuak, bi atekoak, ilunak.

Alabaina, lanik gabe geratu ziren lehendabizikoak haiek izan ziren, institututik atera eta lantegira zuzenean sartu zirenak. Autoaren mailegua ordaintzen ezin izan zuten jarraitu, saldu behar izan zuten; erdi prezioan, gainera. Orain autorik gabe daude, eta salmentarekin diru nahikorik atera ez zuten, mailegua ordaintzen jarraitzen dute. Beste pertsona bat erabiltzen ari den autoa ari dira ordaintzen.

Garai berean barre egiten zuten koadrilakoren bat tirriki-tarraka ibiltzen bazen osabaren batek emandako noranahiko edo furgoneta zaharrarekin. Orain bekaizkeriaz begiratzen dituzte, baina ez lirateke horrelako bat hartzea ausartuko, jendeak zer esango ote duenaren beldur. ■